



3sauskadi

Hirugarren Sektor Sozialaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

JARDUNALDI-TAILERRA

BERDINTASUNERAKO EUSKAL LEGE BERRIA: ALDAKETA NAGUSIAK ETA ONDORIOAK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEAN

HSSEBek antolatua

Data eta tokia:

Jardunaldia ekainak 22an izango da, Bilbon (La Bolsa eraikina, Ibaiondoko barrutiko udalategian).

Planteamendua:

Euskadiko berdintasunerako lege berriak (l 1/2022 LEGEA, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa) aurrekoa aldatzen du bere egituraren logikan, lege honek ulertzen bait du indarkeria matxistaren amaiera lortzeko beharrezkoa dela bere jatorria genero ezberdintasunetan eta berdintasunaren sendotze estrukturalan datzala. Horregatik berdintasuna sakontzen duten neurri konkretuak ematen dira, bereziki administrazio publikoetan, eta "indarkeria matxista" esamoldea sartzan da, bai legearen izenburuan, bai bere printzipio orokorretan; eta indarkeriaren ulermen estrukturala azpimarratzen da, beste iritzi nabarmen batzuen artean.

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko (EHSS) erakundeek konpromezu bat daukate berdintasunarekin, ez bakarrik emakumeekin edo emakumeentzat lan egiten dutenak, baizik eta gizarte eskuhartzean eta eraldaketan aritzen diren guztiak. Batzuk legearen eragin zuzena jasango dute, bere tamainagatik, bere finantzazioaren jatorriagatik edo bere ekintza motagatik. Baina hemen ulertzen dugu gizarte konpromezuaren zentzuan guztiei dagokiela zaintza, hezkidetza, berdintasuna eta genero ikuspegia duen gizarte inklusioaren kultura baten erizpide eta helburuak bereganatzea.

Jardunaldi honetan lege berriaren gako nagusiak azalduko dira eta hirugarren sektorearekiko zehaztaperen konkretuak helduko dira (berdintasun planak, profesionaleen formakuntza, kontziliazioa, hezkidetza, inklusio neurriak, indarkeria matxistari aurre egitea). Gainera, esparru bat zabalduko da elkarrekin gai honen inguruko gogoeta eta beharrak aurkeztu ditzaten.

Helburuak eta egitura:

Topaketaren helburu nagusia EHSSko erakundeei berdintasun lege berria ezagutzera ematea da, eta baita lege berri honek hirugarren sektorearentzat izan ditzakeen ondorioak, eta haiekin hausnartzea berdintasuna zelan lagundu eta eraiki ahal den, zentzu positiboan: indarkeria gutxitzeko bidea berdintasuna eraikitzea da, kontzientzia hartzea eta baldintza estrukturalak sortzea. Hau da, erakundeak berdintasunerako prozesu hau zertan datzan hausnartzera deituak dira. Prozesu honek, beste gauza batzuen artean, hau ekarriko luke:



3. euskadi

Hirugarren Sektor Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

1. Hirugarren sektoreko erakundeetan berdintasun planak garatzea
2. Gizonen erantzukidetasuna eta partehartzea berrikusi, eta bere sarrera abantailak uztea suposatzen duen prozesu batean.
3. Emakume elkarteen lana indartzea, laguntzea eta eragitea
4. Zaintzen zentraltasuna azpimarratzea eta beste ekonomia eta gizarte eredu batean aurrera egitea.
5. Heziketa eta hezkidetzaren alorrari adi egotea. Belaunaldi tartea eta berdintasunerako heziketa prozesua zaintzea.

Horretarako jardunaldia bi partetan bananduta egongo da:

- 1) Lehengo aurkezpen parte, non legearen berritasunak azalduko diren, eta hirugarren sektore sozialarentzat dakartzan ondorioak; EHSSko erakundeak bereziki deituak diren gakoak zehaztuko dira
- 2) eta tailer moduko bigarren parte bat, non, dinamika ezberdinen bitartez, bai pertsonak eta bai erakundeek legearen inguruko bere ikuspegiak partekatu ditzaketen, eta taldean landu zer eman dezaketen EHSSko erakundeek berdintasunean aurrera egiteko.

Programa:

10:00. Partehartzaileen agurra eta harrera

10:05. Jardunaldiaren aurkezpena

10:10. Berdintasunerako euskal lege berria

IZASKUN LANDAIDA eta ANDER BERGARA. EMAKUNDE

10:50. Zer galdetzen dio berdintasunerako euskal legeak EHSSri?

ZALOA PEREZ. REAS Euskadi

11:30. Galderak

11:40. Atsedena

11:55. Tailerra: zer egin dezakegu EHSStik berdintasunean aurrera egiteko?

13:00. Bukaera